EHU

2026/2027 Euskal Herriko Unibertsitatearen Jarduera Plana

Sarrera

2026/2027 ikasturterako Jarduera Plan hau Euskal Herriko Unibertsitatearen 2026-28 Estrategia Planean ezarritako orientazio, lehentasun eta helburuekin lerrokatuta dago. Planaren xedea da estrategia mailan definitutako erronkak eta konpromisoak ekintza zehatzetan finkatzea, urteko jardueraren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa errazteko.

Horretarako, estrategia planak zehazten dituen ardatz nagusi bakoitza hartu da erreferentziatzat eta identifikatu dira ardatz horietan jasotako helburuak aurrera eramateko beharrezko jarduerak. Ekintza horiek unitatearen jarduna gidatuko dute ikasturtean zehar, baliabideen erabilera eraginkorra sustatuz eta erakunde-helburuak lortzen lagunduz.

Jarduera Plan hau, beraz, estrategia eta eguneroko kudeaketaren arteko lotura tresna da, lehentasunak argitzeko, erantzukizunak zehazteko eta lortutako emaitzen ebaluazioa ahalbidetzeko. Aldi berean, etengabeko hobekuntza, koordinazioa eta gardentasuna indartzeko tresna gisa ulertzen da, Euskal Herriko Unibertsitatearen misioari eta balioei ekarpena egiteko.

EHU

1.

I(ra)kaskuntza

1. Kalitatezko prestakuntza eta irakaskuntza indartzea, ikasleen gaitasun zehatzak zein zeharkakoak garatzeko.

1.1 ekintza: **Irakaskuntzan gradualki tresna digitalak zabaltzea.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO; Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Zeharkako gaitasunen txertaketa diseinatu eta garatu.
- EGelan lan kooperatiborako tresna gehitu.
- Ikaskuntzarako konpetentzia digitala garatzeko formazioa digitala diseinatu eta eskaini.
- Presondegietan dauden unibertsitate-ikasleen ikasketa-prozesua eta jarraipena erraztea, eGelaPi plataforma ezarri eta baliabide akademikoetarako sarbidea bermatuz.

1.2 ekintza: **Irakaskuntza ebaluatzeko tresnak birdefinitzea, egokitzea eta hobetzea, eta, horrela, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatea handitzea.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO; Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Ebaluazio araudia berrikusi.

1.4 ekintza: **Diziplinarteko lan egiturak kontsolidatu eta sustatzea.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- Diziplinarteko lan egitura diseinatu.
- Diziplinarteko pilotu bat burutu.

1.5 ekintza: **Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren nazioartekotzea sustatzea.**

Arduradunak: Transferentzia eta Nazioartekotze EO; Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Nazioarteko formakuntza-azoketan parte hartu, gure eskaintza ezagutarazteko eta ikasleak erakartzeko.
- ENLIGHTeko jardueretan parte hartzea erraztu.

- Bordeleko Unibertsitatearekin mugaz gaindiko campuseko jardueretan parte hartzea erraztu.
- Boise State Unibertsitatearekin mugaz gaindiko campusean abian jarritako truke-programa kontsolidatu, eta IRI kolektibora zabaldu.
- Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoarekiko (UNAM) aliantzan sakondu, baterako jarduerak antolatuz.
- KA131 eta KA171 modalitatetako Erasmus + programen erabilera maximizatu.
- Erasmus Mundus masterrak, nazioarteko titulazio bikoitzak eta nazioarteko programen kalitate zigiluak sustatu.
- Graduondoko Sare Latinoamerikarreko unibertsitateekin ditugun harremanak zaindu eta sendotu.

2. Lurraldeko erronka estrategikoei erantzutera bideratutako prestakuntza eskaintzaren garapena.

2.1 ekintza: **Graduondoko prestakuntzaren eskaintza garatzea online hezkuntzaren eskaintza eta irakaskuntza eredu hibridoak areagotuz.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Unibertsitate-masterrak eta berezko ikasketen eskaintza online eta hibridoa bultzatu.

2.2 ekintza: **EHUko Esparru Dualaren garatzea, graduetan eta unibertsitate masterretan indartuz.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO; Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- EHUduala bulegoa sortu.
- EHUduala estrategia aurkeztu eta zabaldu.
- Unibertsitate-master dualak bultzatu.

2.3 ekintza: **EHUmikrokredentzialak kontsolidatzea.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Mikrokredentzialei buruzko araudia onartu.
- Mkrokredentzialen euskarri informatikoa garatu.
- Mikrodredentzialak EHUn eta EHUtik kanpo zabaldu.

2.4 ekintza: **Unibertsitateko/ikastegietako titulazioak eta plan akademikoa berrikustea eta eguneratzea.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- EHUrako Graduetarako sarbidea aztertu.
- Gaur egungo EHUko Plan Akademikoa aztertu.
- Ikastegi eta Fakultateei titulazio maparen garapenerako proposamena aurkeztu.

2.5 ekintza: **Proiektu komunak garatzea Lanbide Heziketarekin elkarlanean.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- Lanbide Heziketako ikastetxeekin batera Hezkuntza Berrikuntza Proiektuak bultzatu.
- Lanbide Heziketako ikasleen praktikak EHUn egitea bideratu.
- EHUko prestakuntza profesionaleko ibilbideak dituzten graduen egoera aztertu.

2.6 ekintza: **Irakasleen garapen profesionalerako eredu propio bat diseinatzea eta garatzea.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- Irakasleen garapen akademikorako markoa diseinatu eta komunitateari aurkeztu.
- Hiru prestakuntza lehen pakete diseinatu EHUko irakasleei garapen akademikoan laguntzeko.

2.7 ekintza: **Berezko ikasketen mapa orekatua diseinatzea.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Fakultateen berezko ikasketen eskaintza aztertu.

2.8 ekintza: **Ikasketa Aurreratuko Zentroen sorrera diseinatzea.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Ikasketa Aurreratuen Zentroen diseinuan aurrera egin, jakintza-arloak, kredituak, irakaskuntza-modalitatea, eta ikasleen profila kontuan hartuta, Enlight aliantzan sustatutako ekimenak lehenetsiz.

3. Kudeaketa sistema arin eta dinamikoen garapena.

3.1 ekintza: **Ikasleen harrera zerbitzuak indartzea.**

Arduradunak: Transferentzia eta Nazioartekotze EO; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Ikasleen harrerarako "ongi-etorri" paketea sortu informazioa erabilgarria emateko: sarbidea, bisa, asegurua, EHU eta Euskadiren informazioa, egonaldia prestatzeko checklist-a, etab.
- Tokiko eta nazioarteko ikasleak ezagutzeko, konektatzeko eta elkarrekin esperientziak partekatzeko ekimenak gauzatu (BUDDY programa, TANDEM programa, ESN ikasle elkartea).
- BAT programa sustatzen jarraitu, ikasle berrien harrera eta unibertsitate-bizitzan integratzea errazteko.
- Ikasturte hasieran klaseko ordezkariekin bilerak edo aurkezpen-saioak egin, haien eginkizunak eta parte-hartze bideak ezagutarazteko.

3.2 ekintza: **Berezko ikasketen unitatea zabaltzea eta hobetzea.**

Arduradunak: Gerentzia; Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Digitalizazioa bultzatu.
- Lan-taldea definitu.
- Araudi berria onartu.

3.3 ekintza: **Esperientzia Gelen kudeaketa akademikorako prozesua garatzea.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO; Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Esperientzia Gelen matrikulazio prozeduren digitalizazio prozesua garatu, SARBIDEA plataforma sarrera bakar gisa erabilita.

EHU

2. Ikerketa

1. Ikertzaileen komunitatea indartzea, bikaintasunerantz.

1.1 ekintza: **Talentu zientifikoa erakartzea eta atxikitzea, lehen etapetan.**

Arduradunak: Nazioartekotze EO; Ikerketa EO.

- Euraxess sarearekin hartu emana hasi eta azaroan antolatuko duten jardunaldira bertaratu.
- Kontratudun doktoregaien ordainsariak hobetzen jarraitu (2026ko deialdian matrikula-gastuetarako osagarria ezarri da).
- Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatzeko EHUko deialdia aztertu eta baldintzak, modalitateak eta ebaluazio irizpideak berritu eta egokitu.
- Doktoradutza egin nahi duten hautagaiak edukitzeko arazoak dituzten arloen eta azpi-arloen egoera aztertu, sarbide eta baldintza egokitutako deialdiak nolakoak izan daitezkeen hausnartzeko.
- Doktoretza ondoko kontratazio-programak indartu.
- Atzerriko ikertzaileentzako harrera-ekintzak sendotu.

1.2 ekintza: **Talentua erakartzea eta atxikitzea ikerketa aurreratuan.**

Arduradunak: Ikerketa EO; Irakasle-ikertzaileen EO.

- ERC proiektuak erakartzea eta EHUn garatzen laguntzen jarraitzea; barne eskaerak aurkezten lagundu, kanpoko eskaintzak aztertu eta Ikerbasque-rekin adostu.
- Ikertzaileen ibilbide akademiko profesionala zehazten duen plangintza garatu eta partekatu.
- HRS4R zigilua berritzeko prozesua prestatzea eta aurrera eramatea.
- Ikerketa-irakasleen lehiaketen oinarriak jasotzen dituen araudia onartu.
- Ikertzaile doktore iraunkorren promozioa bermatzen jarraitzea: 2026ko LEPerako plazak zehaztu eta deialdiak egin.

1.3 ekintza: **Doktorego programen erakargarritasuna areagotzea eta doktorego tesien kopurua handitzea.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Doktorego Eskola (DOKe) instituzionalki akreditatu.
- Nazioartean, industrian eta euskaran aipamena duten doktorego-tesiak bultzatu.
- Nazioarteko doktorego-programak eta tutorekidetzako doktoregoak bultzatu.
- ZTBESeko zentroekin ditugun hitzarmenei esker doktorego-prometan matrikula berriak lortzea eta MSCA-COFUND bezalako proiektuak sustatu.
- Doktoregaientzako ikerketa arduratsuari buruzko ikastaro hibridoa eskaini.
- Emakumeak tesi-zuzendari izatea sustatzeko neurriak proposatu.

1.4 ekintza: **Irakasle-ikertzaile guztiak ikertalde aitortuetan sartzeko sustapena egitea.**

Arduradunak: Ikerketa EO.

- Ikertalde aitortuetatik kanpo dauden irakasle-ikertzaileak identifikatu eta arrazoiak aztertu; diagnosian oinarrituta hobekuntza-estrategiak ezarri.
- Ikertzaile hasiberriek gidatutako ikerketa-proiektuen deialdia indartzen jarraitu, iker-talde berriak sortzeko bide gisa.
- Proiektuetan emakume ikertzaile nagusien kopurua handitzen jarraitzea 2026-2027 ikasturteko deialdietan.
- 2025-2026 deialdietan (GIC eta GIU) aitortutako taldeetan kide berriak txertatzeko laguntzak bideratzeko araudia eta deialdia prestatu.

1.5 ekintza: **Unibertsitateko Liburutegia indartzea, zerbitzu estrategiko gisa.**

Arduradunak: Ikerketa EO.

- CoARA lantaldea osatu (Unibertsitateko Liburutegiko eta SGIkerreko kideekin) eta abian jarri.
- Sarbide irekia eta zientzia irekia ahalbidetuko duten neurriak bultzatu.
- Ekoizpen Zientifikoaren Atariaren garapena sustatu.
- Sarbide irekiari eta ikerketa-datuen kudeaketari buruzko prestakuntza eta aholkularitza eskaini IRIei.
- EHUalumni kideei, eta erretirodunei, baliabideak eskura jartzeko bideak arautu eta ezarri.
- Unibertsitateko kideen premia berrietara egokitutako gune fisikoak sortzen eta eraldatzen jarraitu. KUBO espazioen garapena.

2. Ikerketaren kudeaketa aurreraturako taldeak eta sistemak sortzea.

2.1 ekintza: **Ikerketa taldeentzako laguntza handitzea, teknikoa zein kudeaketa arlokoa.**

Arduradunak: Ikerketa EO; Gerentzia.

- Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzaren berrantolaketarekin jarraitu.
- Kontratu-programa berrian IGZrako, EHUrOPErako eta SGIkerreko lanpostuak aurreikusi.
- Ikerketa-institutuei kudeaketa administratiborako pertsonal partekatua izateko urratsak eman.

2.2 ekintza: **Ikerketa ebaluatzeko ereduak eta sistemak sortzea.**

Arduradunak: Ikerketa EO.

- Argitalpenetan EHUko afiliazio zuzena bermatzeko jarraibide eguneratuak zabaldu.
- EHUko ikerketa jarduera aztertzeko tresnak sendotu: Bibliometria Unitatea.
- CoARA Ekintza Plana osatu eta ezarri, Ikerketa Arduratsurako Zuzendaritzaren koordinaziorekin.
- Jardunbide Egokien Kodea EHUagoran jasotako ekarpenekin osatu, eta CoARA, Unibasq eta Eusko Jaurlaritzaren Aditu Foroan parte hartzen jarraitu.
- EHUko ikerketa-institutuen ebaluazio- eta jarraipen-tresna garatu (diagnosia eta irizpideak eginda daude).

2.3 ekintza: **Ikerketa azpiegiturak eta baliabideak jartzea.**

Arduradunak: Ikerketa EO; Campus EO.

- Ikerketa-espazioak banatzeko irizpideak eta okupazio-protokoloak ezarri hiru campusetan.
- Abeltegiko hobekuntza-plana osatzen jarraitu (ekintzen % 45 eginda, % 24 abian).
- CIIPen premiei erantzun IKAUNI programaren eta Kontratu Programaren bidez.
- Azpiegitura partekatuak erabiltzeko akordioak sustatu, barnekoak zein ZTBESeko eragileekin.

2.4 ekintza: **Adimen Artifiziala ikerketan era arduratsuan erabiltzeari buruzko prestakuntza programa bat sortzea.**

Arduradunak: Ikerketa EO; Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- AAren erabilera arduratsurako printzipio eta orientabideetan oinarrituta (argitaratuta daude) prestakuntza-programa diseinatu.
- AA ikerketan era arduratsuan erabiltzeari buruzko dilemak landu unidilemak.eus plataformaren bidez.
- Ikerketarako Adimen Artifiziala garatzeko formazioa eskaini.

2.5 ekintza: **EHUren zientzia irekiko politika instituzionalaren ezarpen eraginkorra bultzatzea.**

Arduradunak: Ikerketa EO.

- Zientzia irekiko politika instituzionala onartu eta zabaldu, CoARA Ekintza Planarekin lerrokatuta.
- Liburutegiarekin Zientzia Irekiko lantaldea osatu eta Zientzia Irekiaren Bulegoa sortzeko urratsak eman.
- ADDI eta ADDI-Dat gordailuen erabilera sustatu.

3. Barne lankidetza eta diziplinartekoa, nahiz kanpoko aliantzak eta konexioak sustatzea.

3.1 ekintza: **Nazioarteko aliantza instituzionalak indartzea.**

Arduradunak: Ikerketa EO; Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- Bordeleko Unibertsitatearekin daukagun aliantza sendotu.
- ENLIGHT aliantza europarrean EHUk duen partaidetza sendotu.
- Arku Atlantikoaren unibertsitateen sarea nukleatu EHUren inguruan.
- Boise State Unibertsitatearekin EHUk duen aliantza berriari eduki gehiago eman.
- EHUren ikasleak zein, IRI eta TEKAZEL kolektibokoak euskal diasporarekin harremanetan jarri.
- Charta Magna Universitatum delakoari atxikimendua mantendu.
- Bakearen aldeko unibertsitateen adierazpenari atxikimendua mantendu.

- Mugaz gaindiko kurtsoetarako sinatutako MOU bultzatu.
- Horizon Europen parte-hartzea handitu, batez ere, EHU koordinatzaile denean.
- ENLIGHT, Euskampus eta beste nazioarteko sareetan COARA garatzeko ekimen bateratuak sustatu.
- Horizon Europe programa berrirako (2028-2034) lankidetzak prestatzen hasi.

3.2 ekintza: **Lotura instituzionala indartzea EHUren barruan eta ZTBES/SINAIrekin.**

Arduradunak: Ikerketa EO; Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- Katedra instituzionalak sustatu.
- Behin hitzarmen orokorrak berrituta, EHU-CSIC Institutu mistoen Barne Araubideko Araudia landu eta onartu.
- BERC sareko zentroekin hitzarmenak eta barne araudiak berritu. Lehen urratsean, EHU group osatzen duten Polymat, Achucarro, BCMaterials.
- EHUko ikerketa-proiektuen informazioa bildu eta zabaldu, barne-sinergiak errazteko.
- Osasun Saileko Ikerketa Zuzendaritzarekin eta BIOEFekin koordinazioa sendotu, eta BIOEFekiko hitzarmen markoa berritzen hasi.
- European Health Data Space-ri buruzko lantaldea eratu Osasun Sailarekin solaskide izateko.
- ZTBESeko eragileekin eta SINAIrekin (Nafarroa) bestelako lankidetza-aliantzak landu.

3.3 ekintza: **Lurraldearen problematika eta premia nagusiak aztertuko dituzten diziplina anitzeko ikerketa programak bultzatzea.**

Arduradunak: Ikerketa EO; Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- Unibertsitate-enpresa-gizarte gelak sustatu.
- Unibertsitate-enpresa-gizartea proiektuen deialdia bultzatu.
- Barne-deialdietan inpaktuaren plangintza ebaluazio-irizpide gisa sartu.
- Lurraldearen erronkei (RIS3 Euskadi, EHUagenda 2030, ZTBP 2030) lotutako diziplinarteko proiektuak sustatu. Bai RIS3 Euskadi edo Berrikuntzaren Itsasargiak programen antzeko kasuetan, bai beste plangintza ofizialei begira; hala nola, Inklusioa, Enplegua eta Gizarte Ongizatea arlokoak, Osasun Publikoa eta Zaintza ingurukoak zein Berdintasuna, Hezkuntza eta Bizikidetzakoak.

EHU

3.

Transferentzia eta inpaktu soziala

1. Kultura ekintzailea sustatzea.

1.1 ekintza: **Kultura ekintzailea sustatzea ikasleen artean.**

Arduradunak: Campusetako EOak.

- Campuseko ikasleen artean ekintzailetza zientifiko-teknologikoa ez den kultura sustatu, startup-en sorrera eta autoenplegua bultzatuz inguruko erakundeekin lankidetzan (garapen-agentziak, Lanbide, Rural Kutxa, besteak beste).
- Ikasleen eta irakasle-ikertzaileen artean ekintzailetzaren kultura sustatu, Campusetako zentroetan hainbat ekitaldi antolatuz: Gazteentzako Ekintzailetza Beken antolaketan burutzen, Entreprenari, Zitek eta Inizia programak bultzatuz eta Manuel Laborde Werlinden sariak antolatuz, Inizia eta Think Big sariak bultzatuz.
- Enplegagarritasunarekin eta ekintzailetzarekin lotutako jarduera eta azoka guztiak kudeatu eta antolatu.
- 2027-2030 Enplegagarritasun Plana egin eta martxan jarri.

1.2 ekintza: **Ekintzailetzarako kultura sustatzea irakasle-ikertzaileengan.**

Arduradunak: Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- Spin off-en sorrerarako araudi berriaren bitartez irakasle-ikertzaile gehiagoren ekintzailetza piztu.
- Patenteen erregistroa egin ahal izateko egin behar diren izapideak erraztu.
- Ikerketaren bidez sortzen den ezagutza berria babesteko jabetza industrialerako erramintak erraztu.

2. EHUk berrikuntzaren eragile estrategiko gisa dituen gaitasunak indartzea.

2.1 ekintza: **Katedren eta Unibertsitate-Enpresa-Gizarte (UEG) gela kopurua handitzea.**

Arduradunak: Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- EHUk enpresekin dituen harremanak sendotu.
- Erakunde publikoekin harremanak indartu.
- Unibertsitate-gizarte gelen sorrera bultzatu.
- Katedrak sortu erakunde publikoekin batera gizartearentzako gai estrategikoen inguruan.

2.2 ekintza: **Jabetza intelektualaren eta industrialaren sorkuntza eta lizentzia akordioak areagotzea.**

Arduradunak: Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- Ezagutzaren Transferentziarako Bulegoa (OTC) sendotu.

2.3 ekintza: **Enpresekin, eragile sozioekonomikoekin eta erakunde publikoekin harremanak bultzatzea.**

Arduradunak: Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- Ikastegietatik sortzen diren harremanak babestu.
- Elkar ezagutzeko guneak eta ekitaldiak sustatu.
- Katedren eta Unibertsitate-Enpresa-Gizarte (UEG) gelei buruzko informazioa zabaldu.

3. EHUren inpaktu soziala indartzea eta ikusaraztea.

3.1 ekintza: **EHUren transferentziaren eta inpaktu sozialaren neurketa eta ebaluazio sistematikoa ahalbidetzeko tresnak sortzea.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO.

- Inpaktu sozialaren Behatokia tresnaren diseinua eginda, ikusgarritasuna bermatzeko atari publikoa garatu.
- Inpaktu soziala neurtzeko indikatzaileak definituta, Behatokia edukiz elikatu.

4. Ebidentzian oinarritutako politika publikoen definizioari EHUk egiten dion ekarpena artikulatzea eta areagotzea.

4.1 ekintza: **Politika publikoen ebaluazioaren eremuan diziplinarteko esparru akademikoa eratzea.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- EHU-Besaldi (Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Inklusio Politikak Ebaluatzeko Organo independientea) aliantza estrategikoa sustatu, ebaluazioaren eremuan ikerketa-proiektuak eta formakuntza-eskaintzak ahalbidetzeko.

4.2 ekintza: **Proposamenak, txosten eta memoria teknikoak, material didaktikoa eta prestakuntza programak prestatzea.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Politika publikoen inpaktua ebaluatzeko formazio jardunaldiak antolatu.

4.3 ekintza: **Aholkularitza zientifikoko metodologiei buruzko ikerketa sustatzea eta aholkulari zientifikoen sarea egituratzea.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Enplegu eta inklusio politiken ebaluazioaren arloan ikerketari, prestakuntzari eta jakintzaren transferentziari lotutako jardueretarako laguntzak emateko deialdia egin.

EHU

4.

Dibulgazioa, difusioa eta kulturaren sustapena

1. Herritarren ahalduntzea sustatzeko, difusio eta dibulgazio zientifikoko jarduerak zabaltzea eta areagotzea.

1.1 ekintza: **EHUren hedapen eta dibulgazio zientifikoko jarduerak areagotzea.**

Arduradunak: Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- Zientzia Astearen jarduerak hedatu gizartean dauden kolektibo guztietara.
- Zientzia Astearen jarduerak eroan hiriburuetatik haratago.
- Ikertzaile europarren gaua sendotu.
- EHUpodcast-a kontsolidatu.
- Dibulgaziorako dauden deialdietan parte hartu bestelako iniziatibak babesteko.
- Kultura Zientifikoaren Katedraren jarduerak babestu.
- Eragile desberdinekin lankidetzak eta sareak sortzea dibulgazioa sustatu: museoekin, elkarteekin, udalekin...
- Jakindari Aliantzako beste erakundeekin lankidetzak bultzatu.
- Dibulgazio zientifikoan prestakuntza sustatu EHUren barruan.

1.2 ekintza: **Unibertsitate aurreko ikasleak unibertsitatera hurbiltzeko eta orientatzeko programak indartzea.**

Arduradunak: Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO; Campus EO.

- EHUazoka, Ate Irekiak eta Jardunaldi Praktikoak, bestek beste, antolatu eta kolektibo gehiagori zabaldu EHUren eskaintza akademikoa eta unibertsitateko errealitatea unibertsitate aurreko ikasleei eta haien familiei hurbiltzeko.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin eta orientatzaileekin lankidetza-sareak eta orientazio jarduerak sendotu.

1.3 ekintza: **Komunikazio korporatiboaren plana garatzea.**

Arduradunak: Komunikazioko EO.

- II. Komunikazio Plana garatu.
- Prestakuntza saioak areagotu.
- Ikastegietako pantailak eguneratu.
- Zuzendaritza taldearen berri-papera indartzen jarraitu.
- Mezu korporatiboetarako txantiloiak berritu.
- Marka berriaren seinalitika egokitzen jarraitu (ikastegietako errotulazioa).

1.4 ekintza: **EHUko irakasle-ikertzaileen dibulgazio lana aitortu eta prestigioa ematea.**

Arduradunak: Komunikazioko EO eta Ikerketa EO.

- Webgunearen berritze orokorraren baitan IKERTU atalaren azpiorriak berritu.
- EHUren ekarpen zientifikoa ezagutarazteko baliabideak berritu eta areagotu: web orria ("Kanpoko Ebaluazioak, Emaitzak eta Rankingak") gaurkotu, moldatu eta indartu.
- Eragile ezberdinekin osatutako batzorde bat eratu ranking eta ebaluazio baliabideak aztertu eta ibilbide-orri bat zehazteko.

2. Esperientzia Gelak bultzatzea.

2.1 ekintza: **Esperientzia Gelen programak gehiago ezagutaraztea.**

Arduradunak: Komunikazioko EO.

- Esperientzia Gelak foroetan zabaltzeko eta sustatzeko ekimenetan parte hartu.
- EHUazokan parte hartu.

2.2 ekintza: **Esperientzia Gelen euskarazko eskaintza handitzea.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO; Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO.

- Euskarazko hautazko irakasgai berriak eskaintzeko proposamena egin.
- Euskara eta Hizkuntza Plangintzako errektoreordetzak antolatutako doako bi euskara-ikastaro (oinarrizko maila) Esperientzia Geletan eskaini, ikasleen parte-hartzea erraztuz.
- Arabako Esperientzia Geletan hitzaldiak euskaraz ere eskaini.
- Esperientzia Gelen euskarazko eskaintza handitzeko proposamena diseinatu.

2.3 ekintza: **Esperientzia Gelen eskaintza eta kultura programazioa koordinatzea.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO; Campus EO; Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Euskara eta Kultura Zuzendaritzarekiko koordinazioa indartu, Esperientzia Geletako ikasleek parte har dezaten programatutako jardueretan edota ikastetxeen eskaintzan.

2.4 ekintza: **Elkarrekintza estutzea Esperientzia Geletako eta graduko ikasleen artean.**

Arduradunak: Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO; Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Bizkaiko Esperientzia Geletako egresatuak Bizkaiko graduetako irakaskuntza-eskaintza arautuan 2027/28 ikasturtean matrikulatzeko proiektua abian jarri.
- Gipuzkoako eta Arabako Campusetan eskaintzen diren tituluetako graduko irakasgaietan plaza gehiago eskaini Helduentzako Unibertsitate Ikastaroetan (HUI).
- Esperientzia Geletako ikasleek Campusetan programatutako belaunaldien arteko jardueretan parte har dezaten informazioa zabaldu.
- Mikrokredentzialak eskaini Esperientzia Geletako ikasleei.
- Hiru Campusetako Esperientzia Gelen arteko koordinazioa areagotu antolatzen diren hitzaldi, ikastaro, kontzertu eta abarren berri izatea bermatuz.

3. EHUren kultura politika indartzea.

3.1 ekintza: **Kultura Plana sortzea.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO; Campusetako EOak.

- 2027ko udaberrirako EHUren Kultura Plana aurkeztu.

3.2 ekintza: **EHUren kultura sorkuntza sustatzea eta gizartean inpaktua duten kultura eta kirol jarduerak bultzatzea.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO.

- Unikoak musika lehiaketaren bidez, kultura beken bidez, G9aren Antzerki Erakustaldiaren bidez eta EHAZErekin elkarlanean sustatu nahi den Sorkuntza Laborategiaren bidez kultur sorkuntza sustatu.

3.3 ekintza: **Lankidetza harremanak areagotzea eta kultura eragileekin hitzarmenak erdiestea.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO.

- EHAZE elkartearekin hitzarmena sinatu.
- Lanarteanekin euskal kultur industriari buruzko ikerketa sustatu.

3.4 ekintza: **Kanal digital berriak sortzea EHUren kultura jardueraren berri eman eta zabaltzeko.**

Arduradunak: Komunikazioko EO.

- Web orria berritzeko I. fasea beteta, II. Fasea garatu.
- Jardueren berri emateko koordinazioa indartze aldera, egiteko-irizpideak banatu ikastegietako komunikazio arduradunekin.

4. EHUk euskal kulturaren garapenari eta euskararen biziberritzeari egiten dion ekarpenean sakontzea.

4.1 ekintza: **Erreferentzialtasuna irabaztea Euskal Herriko artearen, kulturaren eta pentsamenduaren proiekzioan.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO.

- Komunikazio bulegoaren laguntzarekin EHUkulturak zein Mikel Laboa katedrak sustatutako jarduerak gizartera zabaldu.
- Lourdes Iriondoren "Lamiñak" abestiaren bideoklipa aurkeztu.
- G9-ko antzerki erakustaldia antolatu Gasteizen.

4.2 ekintza: **Euskarazko dibulgazio zientifikoa sustatzea eta indartzea.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO; Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- Zientzia Astearen jardueretan euskara eta gaztelania modu egokian erabili.
- Ikertzaile europarren gauan euskara eta gaztelania modu egokian erabili.
- EHUpodcastean euskara eta gaztelania modu egokian erabili.
- Euskarazko dibulgazio-materialak sortzeko laguntza, aholkularitza eta formakuntza eskaini.

4.3 ekintza: **Harremanak estutzea euskararen biziberritzerako lanean ari diren gizarte erakundeekin.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Hitzarmen berriak egin Euskaltzaindiarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin.

4.4 ekintza: **Erreferentzialtasuna lortzea euskarak EHUn duen egoerari buruzko azterlan soziolinguistikoen bidez.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO.

- EHUn azterketa soziolinguistikoak egin ahal izateko behar diren datuak biltzeko sistemak integratu kudeaketa orokorrean.
- Soziolinguistikari eta hizkuntza gutxituei buruzko nazioarteko erreferentziazko masterra diseinatu.

5. Unibertsitatearen hedakuntza indartzea Uda Ikastaroen bidez.

Arduradunak: Gipuzkoa EO.

- UIK-EHU marka sendotu irakaskuntzaren kalitatea eta parte hartzea handituz eta gizartean presentzia indartuz, komunikabide eta sare sozialen bitartez.
- Ikasle-profesionalen parte hartzea handitu.
- Gizarteko eztabaida nagusiak landu: jasangarritasuna, Osasuna, Eraldaketa teknologikoa eta Hizkuntza-erronkak.
- Nazioarteko proiekzioa indartu, nazioarteko aditu eta erakundeen parte hartzearekin.
- Euskararen erabiliera bultzatu ikastaroetan.

6. EHUgune indartzea, gizarte zibilarekiko eta erakundeekiko elkarrizketa foro gisa.

Arduradunak: Harreman Instituzionalak eta Kultura EO.

- EHUgune EHU estrategiara lerrokatu eta publiko berriari zabaldu.

EHU

5.

Pertsonak eta komunitatea

1. Unibertsitateko hiru kolektiboen lan eta ikas baldintzak hobetzea.

1.1 ekintza: **Irakasle-ikertzaileen eta TEKAZEL langileen prekarietateari aurre egitea.**

Arduradunak: Irakasle-ikertzaileen EO; Gerentzia.

- Doktore aurreko ikertzaileen ordainsariak hobetu atxikiekiko egungo soldata proportzioa igoz; 2027an, gutxienez, % 56tik % 60ra, lehen bi urteetakoei.
- Indarrean dauden jardunaldi partzialeko ordezkoen egoerak aztertzen jarraitu, ahal den heinean jardunaldi osora pasatzeko.
- TEKAZEL13. eta 14. mailen lanpostuen balorazioaren egiteko hasitako prozedura amaitu, 2027an ordainsaria igotzeko helburuarekin.

1.2 ekintza: **Enplegu Publikorako Eskaintzak sustatu, planifikatu eta gauzatzea.**

Arduradunak: Irakasle-ikertzaileen EO; Gerentzia.

- TEKAZEL 2023/24 EPEa amaitu.
- TEKAZEL 2025 EPEa martxan jarri.
- EPE 2026 gauzatu eta EPE 2027 diseinatu eta bere gauzapena planifikatu.

1.3 ekintza: **Irakasle-ikertzaileen eta TEKAZEL langileen promozio aukerak areagotzea.**

Arduradunak: Irakasle-ikertzaileen EO; Gerentzia.

- IRIen urteko promozioa diseinatu, legez ahal diren postu guztiak bermatuz, itxaron zerrenda murrizten jarraitzeko.
- TEKAZELen karrera profesional nola bideratu aztertzen hasi.

1.4 ekintza: **Kontziliazio neurri gehiago hartzea.**

Arduradunak: Ikasleen EO; Irakasle-ikertzaileen EO; Gerentzia.

- Kontziliazio batzordea sortu modu bateratuan aurrera bideak martxan jartzeko.
- TEKAZELen artean urrutiko lanaren plan pilotua martxan jarri.

1.5 ekintza: **IRI eta TEKAZEL langileen etengabeko prestakuntza eta eguneraketa bermatzeko plan bat ezartzea.**

Arduradunak: Irakasle-ikertzaileen EO; Gerentzia.

- Abiatu EHUko etengabeko prestakuntzaren eskaintza IRIen lanaldiaren baitan uztartu ahal izateko.

1.6 ekintza: **Belaunaldi aldaketa bermatzea eta plantilla gaztetzea.**

Arduradunak: Irakasle-ikertzaileen EO; Gerentzia.

- Indarreko erretiro akordioen neurrien eragina aztertu eta bide berriak urratzeko hobekuntzak negoziatu, belaunaldi aldaketa duin bat bermatzeko.

1.7 ekintza: **TEKAZEL langile berrientzako harrera plan/dokumentu bat ezartzea.**

Arduradunak: Gerentzia.

- Langile berrientzat harrera dokumentu orokorra sortu.

1.8 ekintza: **Lanpostuko zereginetarako beharrezko tresneria eta azpiegitura digitalak eskuragarri jartzea.**

Arduradunak: Gerentzia; Irakasle-ikertzaileen EO.

- Egungo beharrezko tresneria eta azpiegitura digitalen jarraipena egin, beharrezko neurriak hartzeko.

1.9 ekintza: **TEKAZELen monografia guztien berrikuspena eta balorazioa egiteko plangintza diseinatzea.**

Arduradunak: Gerentzia.

- Monografiaren berrikuspena eta balorazioaren plangintza definitu.

2. Irakaskuntzan egiten den lana eta irakaslearen figura prestigiotzea eta aitortzea.

2.1 ekintza: **Irakasle-ikertzaileen gida osatzea.**

Arduradunak: Irakasle-ikertzaileen EO.

- Irakasle-ikertzaileen egoerak, egitekoak, orientabideak, eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen gida baten oinarriak zehaztu.

2.2 ekintza: **IRIen lanaren aitortza handitzea.**

Arduradunak: Irakasle-ikertzaileen EO; Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- Lana aitortzeko JARDUnen diseinu berria abian jarri.
- IRIen ordainsaria ereduaren berrikuspen prozesua abian jarri.

2.3 ekintza: **IRIen jarduna balioan jartzea.**

Arduradunak: Komunikazioko EO.

- Irakasle-ikertzaileei buruzko komunikazio jarduerak indartu Campusaren, eta komunikabideen, bidez.
- Lan-eskaintzak webgunean iragartzeaz gain, komunikabideetan difusioa indartzen jarraitu.

3. Pertsonen ongizate psikosoziala sustatzea eta bizi baldintzak hobetzea.

3.1 ekintza: **Arabako Campusean Zaintza Zerbitzu Integralaren proiektu pilotua martxan jartzea.**

Arduradunak: Campusetako EOak; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Zaintza Zerbitzu Integrala garatzeko lanean aurrera egin, Arabako Campusean proiektu pilotua abian jartzeko beharrezko urratsak emanez eta dagozkion zuzendaritza eta zerbitzuekin koordinatuz.
- Espazioaren egokitzapen lanak amaitu.

3.2 ekintza: **Mugikortasun plan jasangarria bultzatzea.**

Arduradunak: Campusetako EOak.

- EHUren Mugikortasun Plana amaitu eta campusen arteko eta campuseko mugikortasun jasangarria sustatzeko neurriak zehaztu.
- Mugikortasun planean jasotako neurriak lantzen hasi.

3.3 ekintza: **Azpiegituren mantentze-lanak eta segurtasun egokia ziurtatzea.**

Arduradunak: Campusetako EOak; Gerentzia.

- Azpiegiturak Hobetzeko Urte Anitzeko Plana garatu eta hiru campusetako jardueren koordinazioa eta jarraipena bermatu.
- Eraikinen birgaitze-, berritze- eta mantentze-jarduerak gauzatu.
- Azpiegituren energia-efizientzia, jasangarritasuna eta irisgarritasuna hobetu.
- Irakaskuntza-, ikerketa- eta unibertsitate-bizitzarako espazio eta azpiegitura berriak garatu eta daudenak egokitu.
- Campusetako kanpo-espazioen urbanizazioa, berrantolaketa eta hobekuntza sustatzea.

3.4 ekintza: **Unibertsitateko kideei etxebizitza topatzen laguntzeko neurriak sustatzea.**

Arduradunak: Campusetako EOak; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- OSTATUko baldintzak eta araudia berritu, baita plataforma digitala ere.
- EHUko ostatu eredu guztien integrazioa eta koordinazioa bermatzeko egiturak abiatu.

3.5 ekintza: **Aniztasunaren onarpena sustatzea unibertsitate-bizitzan.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO.

- Aniztasunaren diagnosia egin.

3.6 ekintza: **Arreta Psikologikorako Zerbitzua indartzea.**

Arduradunak: Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO; Pertsonen ongizaterako eta zaintzarako zerbitzu integraleko zuzendaritza.

- Beste erakunde batzuekin koordinazioa indartu (osasun- eta gizarte-zerbitzuak).
- Osasun mentalaren sustapenerako programa zabaldu.
- Esku-hartze psikologikorako modalitateak zabaldu (taldeko esku-hartzea, telearreta, etab.).
- Suizidioaren prebentzio, esku-hartze eta postbentziorako protokoloaren ezarpena eta aplikazioa bermatu.

4. Komunitatea egin, identitatea eraiki eta unibertsitate-bizitza sustatzea.

4.1 ekintza: **Unibertsitateko kideen ongizatea eta jasangarritasuna sustatzeko neurriak hartzea.**

Arduradunak: Campus EO; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Unibertsitate-komunitatearen ongizatea, osasuna eta ohitura osasungarriak sustatzeko jarduerak garatu: kirol-eskaintza eta jarduera fisikoa bultzatu, osasunaren prebentzio eta sustapeneko ekimenekin jarraitu eta mugikortasun jasangarriaren arloko jarduerak sustatu.
- Lehenengo Campus Planetaren ebaluazioa eta erronka berriak identifikatu, hurrengo plana garatzeko.

4.2 ekintza: **Unibertsitateko bizikidetza bermatzea eta Bizikidetza Batzordea sendotzea.**

Arduradunak: Idazkaritza Nagusia.

- Bizikidetza Batzordea sendotu, batzordearen konpetentziak eta eskumenak birdefinituz eta baliabideen azterketa burutuz.
- Etikan, zintzotasunean eta gizarte-erantzukizunean oinarritutako unibertsitate-kultura sustatzeko protokoloa zehaztu.
- Unibertsitateko bizikidetza berrezartzeko jarraibideak definitu.

4.3 ekintza: **Ikasleentzako guneen autogestio arduratsua sustatzea.**

Arduradunak: Campus EO; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Ikasleentzako espazio autogestionatuen zentsua egin, eta campusetako instalazioetan erabilgarri dauden edo etorkizunean libera daitezkeen espazioak identifikatu.

4.4 ekintza: **EHUalumni figura eguneratzea eta sendotzea.**

Arduradunak: Komunikazioko EO; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Mentoring programa indartu eta EHUko beste ekimen eta programekin uztartu, sinergiak bilatuz.
- EHUalumnien onurak indartu: mikrokredentzialak, liburutegira sarbidea...
- Belaunaldi berrietako ikasle berriak erakarri, identitate bisual eta proposamen berritzaileen bitartez.

EHU

6.

Lurraldetasuna eta nazioartekotzea

1. EHU lurraldearen artikulaziorako bektore gisa kokatzea.

1.1 ekintza: **Unibertsitateak tokiko eragileekin duen harremana sendotzea.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO; Campuseko EO.

- Enpresa eta eragile sozial eta kulturalekin bilera erronda jarraitu.
- Lurraldeko eragileekin kolaborazio hitzarmenak edo akordioak sinatu.
- Katedren eta Unibertsitate-Enpresa-Gizarte (UEG) gela berrien sorrera bultzatu hiru campusetan.

1.2 ekintza: **EHUren presentzia orekatua eta koordinatua indartzea hiru campusetan.**

Arduradunak: Campuseko EO; Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- International Welcome Centreko harrera guneak hiru campusetan mantendu.
- Ikasle bisitariei egiten zaien harrera ekitaldian hiru campusetan egiten jarraitu.
- Zientzia Asteko jarduerak hiru campusetan egiten jarraitu.
- EHUko egitasmo anitzak hiru campusetan zehar programatu.

1.3 ekintza: **Euskara sustatzea lurralde-konpromisoa egituratzeko ardatz gisa.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzako EO.

- Euskarazko Eztabaida Txapelketan euskal lurraldeko beste unibertsitateak integratu (NUP, Deusto, Mondragon, UPPA, UNA). Hitzarmena egin eta txapelketa urtero lurralde bateko erakundeetan egin dadila adostu, Nafarroako Parlamentua, Euskal Legebiltzarra, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Iparraldeko erakunderen batekin.

2. EHUren nazioartekotze integrala bultzatzea.

2.1 ekintza: **EHUren aliantzak indartzea.**

Arduradunak: Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- Alde biko lankidetzako aliantzak sendotu: Bordeleko Unibertsitatearekin eta Boise State Unibertsitatearekin mugaz gaindiko campusekoa.
- EBaren esparruan daukagun ENLIGHT aliantzari jarraipena eman.
- Arku Atlantikoan sortu nahi den AURA aliantzaren nukleoa izatea lortu.
- Graduondokoen Sare Latinoamerikarra sendotu.

2.2 ekintza: **Unibertsitateko kideen mugikortasuna.**

Arduradunak: Transferentzia eta Nazioartekotze EO.

- Boise State Unibertsitatearekin mugaz gaindiko campusean abian jarritako truke-programa kontsolidatu, eta IRI kolektibora zabaldu.
- Laguntzaile doktoreen mugikortasun egonaldi ekimenak indartzea ditugun aliantzen baitan, egonkortze prozesuak bermatzen lagundu.

EHU

7.

Euskararen normalizazioa eta hizkuntza plangintza

1. Euskararen erabilera sendotzea zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa.

1.1 ekintza: **Euskara-batzordeen eta euskara-arduradunen sarea egituratzea eta indartzea.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO.

- Erabilera-plana ezartzeko eta jarraipena egiteko nahitaezkoa den egitura osatu eta lanean jarri: Euskara Batzordeak eta euskara-arduradunak.

1.2 ekintza: **TEKAZELentzako hizkuntza-prestakuntzaren eskaintza dibertsifikatzea.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO.

- TEKAZELen hizkuntza-prestakuntzarako deialdiak berrikusi eta eguneratu.
- Trebatzaileen sistema martxan jarri administrazio-atal batzuetan, bereziki, zerbitzu zentraletan, euskararen erabilera dinamizatzeko eta hizkuntza-kalitatea hobetzen laguntzeko, langileek duten hizkuntza-gaitasuna manten eta garatzen jarrai dezaten lanpostuan euskara erabiliz.

1.3 ekintza: **Euskararen erabilera bultzatzea irakasle-ikertzaileen eta ikasleen komunikazioan.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO.

- Komunikaziorako hizkuntza-praktika onak definitu, eta zabalkundea egin komunitatean askotariko euskarriak erabiliz (Erabilera Planaren eskutik).

1.4 ekintza: **Hizkuntza-paisaia eta web instituzionala.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO; Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko EO.

- Errotulazioa, kartelak, iragarkiak eta webgunea gutxienez bi hizkuntza ofizialetan daudela bermatu.
- Egoki den ataletan, ingelesa eta frantsesa gaineratu.

2. Graduko eta graduondoko eskaintza birdefinitzea, instrukzio-hizkuntzen azterketan oinarrituta.

2.1 ekintza: **Graduko ikasketen euskarazko eta gaztelaniazko eskaintza berrantolatzea.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO; Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- 26-27 irakaskuntza-eskaintzaren hizkuntzen araberako azterketatik abiatuta, 27-28ko irakaskuntza-eskaintzarako hobekuntzarako bideak proposatu, ikastegiz ikastegi eta graduz gradu.
- Prozesu hori ondo bideratzeko, IRIen Errektoreordetzarekin eta Gradu eta Eraldaketa Digitalerako Errektoreordetzarekin bakoitzari dagozkion urratsak koordinatu.

2.3 ekintza: **Graduondoko eskaintza aztertzea instrukzio-hizkuntzen arabera.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO; Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO.

- Unibertsitate-masterren hizkuntzen araberako eskaintza aztertu.

2.4 ekintza: **Ikasle guztien euskarazko komunikazio-gaitasunen garapena bermatzeko ekintzak diseinatzea.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO.

- Gradu guztietan komunikazio akademikoa eta hizkuntza-kontzientzia lantzeko eskaintzen diren Euskara Plan Gidariko irakasgaiek graduz gradu egiten duten ekarpena aztertu, eta ahulguneak dauden graduetan hobekuntzarako ekimenak abian jarri inplikatutako ikastegi eta sailekin batera.

3. Euskararen erabilera sustatzea jakintzaren garapenerako hizkuntza gisa.

3.1 ekintza: **Graduko eta masterreko lan akademikoak euskaraz egin daitezen sustatzea.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO; Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO; Graduondo eta Etengabeko Ikaskuntzako EO.

- Euskarazko GrALak eta MALak zuzentzen duten irakasleei JARDUNen aitortu.

3.2 ekintza: **Doktorego-tesiak euskaraz egin daitezen bultzatzea.**

Arduradunak: Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako EO; Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO.

- Euskarazko Doktoregoa aipamenarekin lotutako prozesuak GAURen integratu, doktore-tesiak aurrera eramateko beste prozesu guztien maila berean.

3.3 ekintza: **Euskarazko liburu, artikulu eta ikus-entzunezko materialen argitalpena sustatzea.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO; Irakasle-ikertzaileen EO; Ikerketa EO.

- JARDUNen grabatzeko iturri modura erabiltzen den Inguma datu-basean detektatutako hutsuneak konpontzeko lan egin UEUrekin batera.

3.4 ekintza: **Euskararen erregistro akademikoen garapena monitorizatzea.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO.

- Eguneratu eta aberastu diren tresnak eta baliabideak (Garaterm, TZOS, HARTA/TAILA) EHUko komunitateari aurkeztu, beren egunerokoan duten baliagarritasuna erakusteko.

4. EAEtik kanpoko ikasleen eta ikertzaileen harrera linguistikoa diseinatzea eta inplementatzea.

4.1 ekintza: **Harrera linguistikorako kanpainak diseinatzea eta aurrera eramatea.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO; Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko EO.

- Hizkuntza-harreran parte hartzen ari direnen esperientziak bildu, 27-28 ikasturterako kanpaina sendoa egiteari begira.

4.2 ekintza: **Euskara-ikastaroak eskaintzea campusetan.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO; Campusetako EOak.

- Euskarazko klaseak eskaini (campusetan eta telematikoak).
- Eskaintza izaten ari den arrakasta ikusita, hurrengo ikasturtean eskaintza zabaldu ahal izateko lizitazio berria egin.

4.3 ekintza: **Berbalagun moduko egitasmoak abian jartzea.**

Arduradunak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako EO; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Berbalagun taldeak antolatu.

EHU

8.

Gobernantza berria eta kudeaketa eraginkorra

1. Antolaketaren dimentsioa: koordinaziorako, partaidetzarako eta ebaluaziorako mekanismoak.

1.1 ekintza: **Barne komunikaziorako kanal eta mekanismo eraginkorrak ezartzea informazio fluxua erraztu eta etengabeko elkarrizketa bultzatzeko.**

Arduradunak: Komunikazioko EO; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Komunikazio sarea indartzen jarraitu, ikastegietako komunikazio dekanorde eta zuzendariordeekin.
- Zuzendariekin ere Telegram bidezko kanala indartu, urteko batzarretik harago, harremana eta komunikazioa estutzeko.

1.2 ekintza: **Campusen eta ikastegien arteko koordinazioa eta aliantza orekatuak bultzatzea.**

Arduradunak: Campusetako EOak.

- Campusaren eta dekanotzen, zuzendaritzen, TEKAZELen eta Ikasleen Kontseiluaren arteko komunikazio etengabea eta eraginkorra mantendu, koordinazioa eta ko-gobernantza indartuz.
- Hiru campusen arteko lankidetzarekin jarraitu interes komuneko gai eta proiektuetan.

1.3 ekintza: **Unibertsitateko kideek parte hartzeko dituzten tresnak eta prozedurak eraginkortasunez erabiltzea eta beharrezkoak diren tresnak txertatzea.**

Arduradunak: Idazkaritza Nagusia; Errektoreordetzak.

- EHUAgoraren erabilera indartu, proiektu pilotu izateari uzteko.
- EHUAgora Klaustroan parte hartzea zabaldu.

1.4 ekintza: **Gardentasuna eta kontuak ematea.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO; Gerentzia.

- "EHU datuetan" garatzeko gunea eraiki.

1.5 ekintza: **Unibertsitate politikaren eta Plan Estrategikoaren jarraipenerako eta ebaluaziorako prozedura partekatuak ezartzea eta prozedura horien zehaztapen instituzionala nahiz gizarte eragina ikusaraztea.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- Kalitate Jardunaldi publikoa antolatu, EAEko kalitateari dagozkion entitateekin.
- Plan Estrategikoaren jarraipenerako plataforma digitalen azterketa egin.

2. Dimentsio tekniko eta operatiboa: kudeaketa tresna efizienteak eta eraginkorrak.

2.1 ekintza: **Organo kolegiatuen kudeaketa digitalizatzea.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO; Idazkaritza Nagusia.

- Gobernu Kontseiluaren kudeaketa digitalizatu eta beste tresna digitalekin integratu (GEDE).
- G-Tabloia martxan jartzeko lehen urratsak eman.

2.2 ekintza: **EHUko Artxibo Nagusia digitalizatzea.**

Arduradunak: Idazkaritza Nagusia.

- Medikuntza eta Erizaintzako Fakultateko akten transferentzia bukatu.
- Bilboko Merkataritza Eskola Zaharreko funtsen inbentarioa amaitu.

2.3 ekintza: **Sarbide bakarra EHUko etorkizuneko ikasleentzat.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- Sarbidea plataforma indartu eta EHUrako ikasketa ofizialetako aurrematrikulazio sarbide bakarra bilakatu.

2.4 ekintza: **IRIen kudeaketarako tresna digitalak garatzea eta txertatzea.**

Arduradunak: Irakasle-ikertzaileen EO; Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- Irakasleen kudeaketarako ibil orriko ekintza guztien digitalizazioa 26/27 ikasturtean gauzatu.
- Ikasturterako lan-poltsen araudi berria aplikazio informatiko hobetuaren bidez gauzatzeko diseinatu.
- Enplegu plataforma digital integrala diseinatu.

2.5 ekintza: **Ikasleen mugikortasuna kudeatzeko tresna digitalak garatzea txertatzea. (Mobility online).**

Arduradunak: Transferentzia eta Nazioartekotze EO; Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- Mobility Online plataformaren lehen fasea abiatu.

2.6 ekintza: **EHUren kalitate politikaren optimizazioa.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO.

- Ikastegietako estrategia EHUren Plan Estrategikoarekin lerrokatzeko baliabideak UNIKUDEn integratu eta ikastegietako 2027ko ekintza estrategikoak lerrokatu.

2.7 ekintza: **Boto elektronikoa txertatzea EHUn.**

Arduradunak: Gradu eta Eraldaketa Digitalerako EO; Idazkaritza Nagusia.

- Boto Elektronikoaren araudi berria indarrean jarri.
- EHUko hauteskundeetan boto elektroniko sistemen azterketa eta pilotajea egin, ondoren gure azpiegitura digitalean txertatzeko.

2.8 ekintza: **Zerbitzuak kudeatzeko protokoloak eta eskuliburuak egitea zereginak behar bezala identifikatu, antolatu eta garatzeko, eta, zereginak bete ahal izateko ezagutza transmititzeko, TEKAZEL langile berrien kasuan.**

Arduradunak: Gerentzia.

- Postu ezberdinen eskuliburuen garapena hasi.

2.9 ekintza: **Prestakuntza espezifikoa duten TEKAZEL profilen kontratazio berriak egitea unibertsitatean dauden askotariko premiei behar bezala aurre egin ahal izateko.**

Arduradunak: Gerentzia.

- TEKAZELen egituraren azterketa egin.
- Erreferentziazko plantillaren definizioa hasi.

2.10 ekintza: **EHUren eraldaketa digitalerako estrategia garatzea, era parte-hartzailean. eta, ahal den kasuetan, software librearen erabilera eta subiranotasun digitala indartuta.**

Arduradunak: Graduko eta Eraldaketa Digitaleko EO.

- Digitalizazio plana onartu.
- EHUko subiranotasun digitalaren azterketa eta neurketa egin.
- Latxa EHUko webgunean integratu.
- Adimen Artifiziala EHUko eGelan integrazioa bideratu.
- EHUko txartel digitalean NFC teknologia barneratu.

2.11 ekintza: **AAren erabilerarako plan bat diseinatu eta ezartzea.**

Arduradunak: Graduko eta Eraldaketa Digitaleko EO.

- AAren erabilera plana diseinatu, eta AA integrazioa hasi EHUko plataforma digitaletan.

2.12 ekintza: **EHU-ko araudien eguneraketa.**

Arduradunak: Idazkaritza Nagusia.

- Estatutu Batzordearen Araudia garatu.
- Ikuskaritza zerbitzurako araudia onartu.
- Klaustroaren Funtzionamendurako Araudia berritu.
- Ikastegi eta egituren araudi orokorra lantzen hasi.
- Bizikidetza Arautegia berritu.
- Aldezlearen Funtzionamendurako Araudia berritu.

3. Dimentsio etikoa. Konpromiso soziala: Feminismoa, inklusibotasuna eta garapen jasangarria.

3.1 ekintza: **IV. Berdintasun Plana ezartzea.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO.

- Berdintasun Planaren gogobetetze taula osatu, inplementatzeke dauden ekintzak identifikatuz.

3.2 ekintza: **EHUko barne ekintzek genero-berdintasunean duten inpaktuaren azterketa egitea.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO.

- Orain arte aurrekontuetan edo araudi berri batean genero inpaktua aztertu den bezala, EHUko ekintzak genero-berdintasunaren ikuspegitik aztertu.
- EHUko ekitaldietarako protokolo feminista landu.

3.3 ekintza: **Berdintasunerako Zuzendaritza 3 campusetan ezartzea.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO.

- Arabako campusean zaintza integraleko zerbitzuan berdintasunerako teknikari bat lanean jarri.

3.4 ekintza: **Jazarpenaren aurkako prebentzioa eta hezkuntza indartzea.**

Arduradunak: Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako EO.

- Genero Indarkeriaren aurkako protokoloa indartzen jarraitu eta Eraldatzen programak lantzen.
- "Emakumeen aurkako indarkeria" ikastaroa eskaini.

3.5 ekintza: **Entzute eta Erantzute Sarea indartzea eta zabaltzea.**

Arduradunak: Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Sarearen barne-koordinazioa handitu: eGelaPi, elkarretaratzeak...
- Kolaboratzaileen (IRI, ikasle eta TEKAZEL) eta ikastegien kopurua handitu, ikasleengan berebiziko arreta jarriz.
- Formakuntza-eskaintza osatu eta aberastu.

3.6 ekintza: **V. Inklusio Plana egin dadin sustatzea.**

Arduradunak: Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- IV Inklusio Planaren garapenaren jarraipena eta ebaluazioa egin, bertan jasotako helburuen eta ekintzen betetze-maila aztertuz.
- V. Inklusio Plana prestatzeko oinarriak landu.

3.7 ekintza: **Arrakasta programa indartzea.**

Arduradunak: Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Foru Aldundietako babes sistemetan dauden gazteei zuzendutako unibertsitate aurreko orientazio jarduerak antolatu, unibertsitatea aukera erreal gisa ikusi dezaten eta goi-mailako ikasketak egiteko aukerak sustatzeko.
- Arrakasta programan parte hartzen duten ikasleei eskaintzen zaizkien laguntzak eta babes neurriak zabaldu eta indartu.
- Ikaslagun programa instituzionalizatu, indartu eta zabaldu, EHUko ikasleek Foru Aldundietako babes sistemetan dauden gazteei tutoretza akademiko boluntarioa eskainiz.

3.8 ekintza: **Errefuxiatuei laguntza emateko ekintzak eta sentsibilizazio ekintzak indartzea.**

Arduradunak: Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- Nazioarteko babesa duten ikasleei eskaintzen zaizkien laguntzak eta babes neurriak zabaldu eta indartu.
- Terras korridore akademikoaren garapena bultzatu, estatuko beste 14 unibertsitaterekin batera.
- Palestinaren egoerari buruzko ikastaroa sustatu.

3.9 ekintza: **Jasangarritasuna EHUren jardueraren zehar-lerro gisa integratzea.**

Arduradunak: Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO; Campusetako EOak.

- Campus Bizia Lab (CBL) proiektuak berrikusi eta indartu.
- Unicities programa Gasteizen egonkortu eta Bilbora zabaldu.
- Bioaniztasuna bultzatzeko CRUEko konpromisoari erantzunez, proiektu pilotua ezarri: Habi kutxen ezarpen eta monitorizazioa.
- Lehenengo Campus Planetaren ebaluazioa eta erronka berriak identifikatu, hurrengo plana garatzeko.

4. Dimentsio komunitarioa: pertenentzia sentimendua.

4.1 ekintza: **EHUren erreputazioa finkatzea.**

Arduradunak: Komunikazioko EO; Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako EO.

- EHUren erreputazioa sendotzen lagundu bere jardun-esparruen bidez, bereziki ikasleen arreta, parte-hartzea, komunitate-sentimendua eta gizarte-konpromisoa indartuz. EHUAzokak emango du ekimen eta emaitza horiek unibertsitate-komunitatearen eta gizartearen aurrean ikusarazteko aukera.
- Ikasturte amaierako ekitaldi bateratuaren lehen edizioaren arrakastaren ondoren, bigarrena bideratzeko prozesu parte hartzailea abiatuko da.

4.2 ekintza: **Unibertsitateko balioekin koherentea den komunikazio instituzionalerako tresnak eskaintzea.**

Arduradunak: Komunikazioko EO.

- Komunikazio dekanorde, zuzendariorde eta arduradun zein komunikazio/multimedia teknikariz osatutako sarea indartu eta formazio saioak gehitu.
- Komunikaziorako lizitazioak indarrean sartu.
- Grafika ataria hasi bitartean, ikastegien esku jarri hainbat euskarri eta aplikazio.
- Argazki artxibo digitala abiatu.
- EHU telebista berrantolatzeko plana diseinatu.